



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 25a

122. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00129. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan hasi beharreko erregelamenduak eta horiek legegintzaldia bukatu baino lehen garatzeko egutegia ezar dezan. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00130. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita familiei laguntzeko neurriak har ditzan. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-000131. Mozioa, zeinaren bidez Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen baitira Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00132. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- 11-24/MOC-00133. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu egingen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrezanetara egokituko baitira. Carlos Guzmán Pérez jauna aurkeztu du (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00430. Galdera, MRR funtsik ez egoteagatik artatzeke dagoen espediente-kopuruari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00431. Galdera, MRR Eraikinak Programari funtsak bideratzeko epeen arazoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00432. Galdera, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarentzako euskarri juridikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).

- 11-24/PES-00433. Galdera, garraiorako erositako arnagailuen ezaugarriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00434. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan jasotzen diren gaikuntzarako prestakuntza-ekintzei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00435. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan aipatzen diren berdintasunaren arloko ezagutzei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00436. Galdera, Familia Elkartzeko Gunea Lizarrako gizarte zerbitzuen barrutira hedatzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00437. Galdera, Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egiteko 2023an aintzat hartu ez diren "zeharkako eragina duten" programei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00129. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan hasi beharreko erregelamenduak eta horiek legegintzaldia bukatu baino lehen garatzeko egutegia ezar dezan

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan hasi beharreko erregelamenduak eta horiek legegintzaldia bukatu baino lehen garatzeko egutegia ezar dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du,

Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Irisgarritasun unibertsala funtsezkoa da esku-bideak, autonomia eta berdintasuna bermatzeko. Irisgarritasunik gabe ezin da aukera-berdintasunaz hitz egin. Guztiontzako da ona; izan ere, bizikaltatea, segurtasuna eta inguruneen, produktuen eta zerbitzuen erabilgarritasuna hobetzen ditu. Zehazki, ona da desgaitasuna duten pertsonentzat, zaharrentzat eta aldi batez beren ingurunea-ekin aritzeko arazoak dauzkatentzat.

Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legeak arautzen du irisgarritasun unibertsala gure erkidegoan, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren arabera hain zuzen ere. Legearen 5.1 artikulua ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoei dagokie beharrezkoak diren irisgarritasun-baldintzak ezartzea aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezen, pertsona guztien autonomia eta inklusioa bermatu behar baita, eta, bereziki, desgaitasuna dutenena.

Legearen azken xedapenetako bederatzigarrenak arautzen du erregelamenduzko garapena, garapen hori ezinbestekoa baita legea bete dadin eta ez dadin esparru teorikora mugatu. Xedapenak ezartzen du garapena sei hilabete eginen dela kasu batzuetan, eta urtebetean beste batzuetan. Nafarroako Gobernua ez da legea

betetzen ari, zeren eta ez baititu hasi 2023an hasi beharreko erregelamendu horiek.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan

eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan hasi beharreko erregelamenduak eta horiek legegintzaldia bukatu baino lehen garatzeko egutegia ezar dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/MOC-00130. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita familiei laguntzeko neurriak har ditzan

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita familiei laguntzeko neurriak har ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gizartearen funtsezko instituzio eta motor nagusi gisa aitortu behar da familia, eta politika publikoak ezarri behar dira familiak askatasun indibidualaren, oparotasun ekonomikoaren eta gizarte-ongizatearen sustapenean duen eginkizun zentrala indartzeko.

Familia gizartearen oinarrizko zutabe bat da, norbanakoek balioak, arauak eta jokabideak lortzen

dituzten lehenbiziko instituzio sozial gisa jarduten duen aldetik. Antzinako garaietatik, familiak eginkizun erabakigarria izan du identitate pertsonalaren taxuketan, kulturaren transmisioan eta familiakoen garapen emozionalean. Familia-harremonek segurtasun- eta babes-ingurunea ematen dute, une zailetan norbanakoek laguntza emozionala jaso baitezakete bertan. Ongizate psikologikorako baitezpadako euskarri da; izan ere, familia-maitasunak autoestimua eta kidesun-sentimendua sustatzen du, eta krisi garaietan laguntza ematen duen babes-sare modura jarduten du; horrek gizarte-kohesioa indartzen du.

Familia oinarrizko gune bat da, eragina duena norbanakoen bizitzaren alderdi guztietan eta, hortaz, gizarte osoan. Familiak bere eginkizuna betetzen duenean hiritar arduratsuak moldatzen laguntzen du, bai eta gizarte-sarea sendotzen ere, eta horrek, aldi berean, gizartearen garapena eta egonkortasuna faboratzen du. Familien formakuntza-zereginari laguntzeko politikek gizarte sendoago eta libreago bat eratzen lagunduko dute.

Familia orobat da espiritu ekintzailea sustatzeko espazio bat. Enpresa txiki eta ertain asko familia-ekimenei esker sortzen dira, eta familiaren babesa erabakigarria izan daiteke enplegua sortzeko eta hazkunde ekonomikorako. Familia-ekintzaitza eta datozen belaunaldiei negozioak eskualdatzea sustatzen duten politikek ekonomia dinamikoago eta libreago bat lortzen lagunduko dute.

Horregatik guztiagatik, Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Onura fiskalak eman diezazkien familiei, bereziki mendekotasuna duten seme-alabak edo pertsonak dauzkatenei, haien ahalmen ekonomikoa sendotzeko.

2. Lanaren eta familia-bizitzaren arteko kontziliazioa susta dezan, lan-malgutasunerako politiken bidez eta guraso-baimen egokiak emanaz.

3. Hezkuntza hautatzeko askatasuna susta dezan; hartara, familiei beren balioei eta prin-

tzipioei hobekien egokitutako formakuntza hautatzen utziko zaie.

4. Familia-ekintzaitza babesteko programak susta ditzan, kreditu bigunetarako irispidea eta negozioak belaunaldien artean eskualdatzeko erraztasunak barne.

Iruñean, 2024ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/MOC-000131. Mozioa, zeinaren bidez Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen baitira Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen baitira Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioaren jarraipena Memoria eta Bizikidetzak, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Joan den apirilaren 19an, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak ekitaldi bat antolatu zuen Gurs-eko barneratze-eremuan bizi izan ziren ehunka nafarren omenez. Gerra zibiletik eta zeuzkaten ideologiagatik edo sinesmenengatik haien kontra abiarazitako errepresiotik ihesi jaioterritik migratutako nafarrak ziren. Han, pilaketa, malnutrizioa eta era guztietako gaixotasunak pairatu zituzten, Pirinioen bestaldean salbazioa aurkituko zutela uste zuten arren.

Gaur goizean bertan irakurri dugu, harriduraz, Italiak barneratze-eremu bat ireki duela Albanian, bertara eramateko gehienbat Saharaz Hegoaldeko Afrikatik herrialde transalpinora heldu diren migratzaileak, gerratik ihesi, ideologiagatik edo sinesmenengatik jazarriak edo besterik gabe, bestelako etorkizun baten bila haientzat eta haien familientzat, Mediterraneoaren bestaldean salbazioa aurkituko zutela pentsatuta.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen ditu Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera.

2. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta

Batzordea– premiatzen ditu legeak eta arauak eman ditzan migratzaileentzako barneratze-eremuak sortzea eragozteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen ditu gizakiarenganako

errespetua eta elkartasuna eta hori bezalako balioak lehenetsiko dituen migrazio-politika ezar dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/MOC-00132. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egitea eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Produktzio-, ekonomia- eta gizarte-munduko transformazio handiak, trantsizio digital eta ekologikoek bultzatuak, produktibitatearen igoera handiak eragiten ari dira. Etengabeko igoera horrek

enpresa-etekinen igoera dakar berekin. Herrialde batek sortzen duen aberastasuna modu ekitatiboa banatu behar da, gizarte osoaren mesederako izan dadin. Soldatak hobetzea eta lanaldia murriztea produktibitatea eta aberastasuna banatzeko funtsezko moduak dira. Garai berrietara egokitzeko ordua da.

Lanaldia murriztea Espainian ez da soilik behar bat, ezpada justizia sozialeko kontu bat eta elkartasun-mekanismo bat ere, berehala ezarri behar dena. Lanaldiaren legezko azken murrizketa orain dela 40 baino gehiago ezarri zen, astean 40 orduko izatea ezarri zenean. Halere, negoziazio kolektiboari esker zifra hori arian-arian murriztu ahal izan da, halako moduan non hitzarmen kolektiboetan batez beste 28,5 ordukoa izatera iritsi baita. Nolanahi ere, sektore eta enpresa askotan ez da bertan egoteko denbora murriztu, eta horrek lehia desleiala eragiten du, bai eta ondorio negatiboak ere enpleguari begira.

Lanaldia murriztea justizia sozialeko auzia da. Lan-eskubideak eta elkartasun-mekanismo bat ezarri beharra dago langile guztientzat.

Ordu gutxiago lan egiteak eragin positiboa du langileen osasun fisiko eta mentalean. Laneko estresa murrizteak eta denbora libreareagoak behar bezala atsedean hartzea ahalbidetzen dute. Denbora gehiago izateak ez du soilik ongizate orokorra hobetzen, absentismo-tasak eta gaitasunagatiko bajak ere murriztea baitakar. Eta, hartara, enpresek ere irabazten dute, kostuei eta lan-jarraitutasunari erreparatuta.

Lanaldia murrizteak ingurumenean ere izan ditzake onurak. Egin diren saio pilotuek erakutsi dutenez, ordu gutxiago lan eginez gero eguneroko joan-etorriak murrizten ahal dira, eta horrek murriztu eginen lituzke negutegi efektuko gasen

emisiok eta airearen kutsadura. Lanaldia murriztea genero-berdintasunerako mekanismo bat ere bada.

Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioaren eta eragile sozialen arteko negoziazio-prozesua geratuta dago une honetan, patronalak uko egiten diolako akordio bat formalizatzeari.

Enpresa-organizazioek negoziazioa berrabiarazi behar dute, eta akordio baten aldeko apustu egin, lanaldiaren murrizketa hori gauzatu dadin, langileen bizi eta osasun kalitatea hobetuko duten enpresa produktiboagoak sustatuta. Neurri horrek lan-bizitza, soziala, pertsonala eta familiarra hobeki eta ardurakidetzaz kontziliatzea ahalbidetuko du, eta gurean enplegua sortzen eta banatzen lagunduko du. Egungo etekin enpresariak erakusten dute neurri hori hartzeko unea heldu dela. Lanaldiaren murrizketak kalitatezko enplegua mantentzeko eta sortzeko balioko du.

Gure herriak erabakitasunez egin behar du apustu langile guztien enplegua eta lan-baldintzak

hobetzeko helburua duen produkzio-eredu baten alde. Lansari baxuetan eta lanaldi luzeetan oinarritutako ereduak alde batera uzteko ordua da, horiek frogaturik baitute ez dutela balio produktibitateko eta aberastasuna sortzeko herri osoarentzat.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egingako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak gure herriko eragile sozial guztiak premiatzen ditu konprometi daitezkeen langile guztien lan-baldintzak eta enplegua hobetzea bilatzen duen produkzio-eredu batekin eta, hortaz, lehenbailehen lor dezaten hiruko akordio bat asteko lanaldia 37,5 ordura arte murrizteko.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00133. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpa-dako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrezanetara egokituko baitira

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNA AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jauna aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Errenta Bermatua sendotu, indartu eta igo dezan, baitezpadako gizarte-eskubide bat den aldetik, halako moduan non bermatu eginen baita errenta hori beharrezkoa duten pertsona guztiek jasoko dutela eta zenbatekoak familien beharrezanetara egokituko baitira.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatua izateko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

2016ko azaroaren 3an, Gizarteratzerako eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen Foru Legea onetsi zuen Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak. Legearen xedea zen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea prozesu pertsonalizatuen bidez, eta errenta bermatua eskuratzeko modua arautzea, oinarrizko beharrak aseta ez dituzten pertsonen zuzendutako prestazio oinarrizkoa, ekonomikoa eta aldizkakoa den hei-

nean. Sortu zen prestazio berri horren bidez, errenta bermatuaren bidez, orduan indarrean zegoen Gizarteratze Errenta ordeztu nahi zen.

Geroago, apirilaren 25eko 26/2018 Foru Dekretua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, Gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideen garapenerakoa, lehen aipatutako legearen erregelamenduzko garapena ezartzeko, bi eskubide horiek ahalik eta modu garden, objektibo eta arinenean eskuratu eta baliatu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuaren webgunean bertan jasota dagoen bezala, prestazio ekonomiko horren xedea da bizitza duina izan ahal izateko gutxieneko bat bermatzea pobrezia-egoeran dauden pertsona nahiz familia-unitateentzat, eta eskubidez eskuratzen ahal den beste edozein diru-sarreraren osagarria da. Gainera, prestazio hori haurrak babestera bideratuta dago argi eta garbi. Gogora dezagun gurasoek lanik edo diru-sarrerarik ez izatea dela haurren pobrezia-arrazoi nagusia.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25.1. artikuluan eta adierazpen hori garatzeko tresna guztietan honako eskubide hau ezartzen da, beste eskubide ekonomiko, sozial eta kultural batzuen artean: pertsona orok du eskubidea bizi-maila egokia izateko, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea nahi gabe galtzearen beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere. Bizi-maila egokia izateko eskubide horixe da babes sozialaren oinarria ahaluzia edo bazterketa sozialeko egoeretan edo horietarako arriskua dagoenean, eta horrenbestez, berarekin dakar botere publikoek erantzukizuna izatea dena delakoagatik egoera horietan dauden pertsonenikiko.

Eskubide Sozialen Europako Zutabeak asmo handiagoko estrategia du, Europako lehenagoko beste jarduketak batzuekin alderatuta, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeari dagokionez. Zutabe horren 14. printzipioari jarraikiz, "behar besteko

baliabiderik ez duen pertsona orok du eskubidea gutxieneko errenta-prestazio egokiak jasotzeko, zeinek bizitza duina bermatuko duten bizitzako etapa guztietan, bai eta ondasunak eta gaikuntza-zerbitzuak lortzeko modua izatea ere. Lan egiteko moduan dauden pertsonen kasuan, (bir)laneratzeko pizgarriekin osatu behar dira gutxieneko errentako prestazioak". 2021ean abiarazitako Ekintza Planaren xedea da pobrezia-aren aurkako borrokan goitiko parekatze bat lortzea. Horretarako, Europako Batzordeak Kontseilu Europarrari egindako gomendioen proposamenean honako eginbehar hauek finkatzen dira: zenbatekoen egokitasuna hobetzea, estaldura hobetzea, enplegu inklusiborako eta oinarrizko zerbitzuetarako irispidea sendotzea eta banakako laguntza sustatzea.

Europako Batzordearen proposamen horren arabera, errenta bermatua egokia izan dadin, haren zenbatekoak Estatu kide bakoitzeko pobrezia-atalasetik gertukoa izan behar du. Zenbateko hori 10.989,50 €-koa zen Espainian 2023an, eta Nafarroako errenta bermatua oso urrun dago hor-tik, 9.144 €-koa denez gero.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGD) abiarazi izanak arindu egin du foru-komunitatearen aurrekontu-ahalegina, baina, halere, behartzen du ahalegin osagarria egitera, Nafarroaren behar espezifikotara egokitzeko, Estatuko batez beste-koak baino handiagoak baitira argi eta garbi errenta-maila, prezioak eta behar sozialak. Arrazoizkoa iruditzen zaigu BGDk foru-komunitatearen funtsetara ekarritako finantza-aurrezpena ez dadila ken Nafarroak pobrezia-aren aurka egiten duen borrokatik; eta, aldiz, erabil dadila errenta bermatua-aren estaldura hobetzeko eta gizarteratze-tresnak sustatzeko.

AROPE tasak eta antzeko beste adierazle batzuek modu frogagarrian erakusten dute errenta bermatua Nafarroako administrazio publikoak duen tresna onenetako bat dela pobrezia-aren eta gizarte-zaurgarritasunaren aurka borrokatzeko. Hala eta guztiz ere, etengabe sortzen dira prestazio hori kritikatzeko duten diskurtsoak, eta murriztua izaterantz erreformatu dadin aldarrikatzen dute. Diskurtso interesatu horien aurrez aurre,

gizarte-justizian sinesten dugunok beharrezkoa den eskubide sozial hori defendatzen jarraitu behar dugu.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak errenta bermatua babesten du, Nafarroako administrazio publikoak pobrezia-aren eta gizarte-zaurgarritasunaren aurka borrokatzeko duen tresna onenetako bat den alde-tik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua premia-tzen du errenta bermatua finkatzera, sendotzera eta hedatzera, funtsezko eskubide soziala den heinean, bermatzearen ezein horren behar-ean dauden pertsona guztiei iritsiko zaiela, zenbateko-ak etxe bakoitzeko beharretara egokituta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua premia-tzen du garatu ditzan indarreko foru legean aurrei-kusita dauden enplegurako pizgarriak, zeinak, ebaluazio positiboa izan badute ere, lehenengo fasean soilik garatu baitira.

4. Nafarroako Parlamentuak Eskubide Sozialeta-ko, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua premia-tzen du garatu ditzan gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko lankidetzarako protokoloak eta mekanismoak, eraginkor egiteko foru lege horrek eta hura garatzeko foru dekretuak lan egiteko moduan dauden pertsona guztientzat bermatzen duten enplegu-eskaintza egokia.

5. Nafarroako Parlamentuak Eskubide Sozialeta-ko, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua premia-tzen du sendotu ditzan gizarte-zerbitzuen oinarrizko laguntzako inklusio-programak, zenbait gizarte-entitatek landutakoekin lankidetzan, kalitatezko akonpainamendu soziala eman ahal izateko errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasorik hala nahi duten pertsona guztiei.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00430. Galdera, MRR funtsik ez egoteagatik artatzeke dagoen espediente-kopuruari buruzkoa*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, MRR funtsik ez egoteagatik artatzeke dagoen espediente-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den martxoaren 13an, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren agerraldia egin zen, azal zezan nola egingen dion aurre zaharberitzeko laguntzetarako konpromiso eusteko finantza-urritasunari.

Agerraldian, Bilkura Egunkarian jasota dagoen eran, honako hau azaldu zuen kontseilariak: "Hain

zuzen ere, funtsen gastua efizientziaz exekutatu izate horrek berak eraman gaitu erreklamatzera, nik ardura hori hartu dudanez geroztik parte hartu dugun Etxebizitza Ministerioaren lau sektorearte-koetan, edo nik edo Etxebizitzako zuzendari nagusiak. Esaten nuen eran, eduki ditugun lau esparru horietan eskatu dugu eman dakiola Nafarroari beste autonomia-erkidego batzuk exekutatzeko ari ez diren funtsen gerakin erabilgarriaren zati bat, autonomia-erkidego horiek funtsak ez exekutatzeko arrazoia dena dela ere, eta nik ez dut hori epaituko. Erreklamazio horrek indarrean jarraitzen du, eta eutsi egiten diogu horri. Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioak horri buruzko erabakia hartzeko zain gaude.

Edonola ere, egon garen eta, esan dudan eran, eskaera hori egin dugun lau sektorearteko- en ostean, iragarri beharrean nago, orobat, erki- degoak betetzen ari ez diren, exekutatzeko ari ez diren, gerakin horretatik, EAE eta Nafarroa salbu, Nafarroak gehienez ere sei milioi euro jasotzen ahalko dituela gerakinen banaketatik, eta ordain- keta hori ez dela inola ere egingen 2025a baino lehenago. Hori jakinarazi digute jada".

Gerakinen banaketan Nafarroak gehienez ere kopuru hori jasotzen ahal duenez gero, aurreikus- penen arabera, funts-urritasuna dela-eta bete- tzeke dauden zenbat espediente artatzen ahalko direla uste du departamentuak?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00431. Galdera, MRR Eraikinak Programari funtsak bideratzeko epeen arazoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, MRR Eraikinak Programari funtsak bideratzeko epeen arazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den martxoaren 13an, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren agerraldia egin zen, azal zezan nola egingen dion aurre zaharberritzeko laguntzetarako konpromiso eusteko finantza-urritasunari.

Agerraldian, Bilkura Egunkarian jasota dagoen eran, honako hau azaldu zuen kontseilariak: "Hain

zuzen ere, funtsen gastua efizientziaz exekutatu izate horrek berak eraman gaitu erreklamatzera, nik ardura hori hartu dudanez geroztik parte hartu dugun Etxebizitza Ministerioaren lau sektorearte-koetan, edo nik edo Etxebizitzako zuzenari nagusiak. Esaten nuen eran, eduki ditugun lau esparru horietan eskatu dugu eman dakiola Nafarroari beste autonomia-erkidego batzuk exekutatzeko ari ez diren funtsen gerakin erabilgarriaren zati bat, autonomia-erkidego horiek funtsak ez exekutatze-ko arrazoia dena dela ere, eta nik ez dut hori epaituko. Erreklamazio horrek indarrean jarraitzen du, eta eutsi egiten diogu horri. Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioak horri buruzko erabakia hartzeko zain gaude.

Edonola ere, egon garen eta, esan dudan eran, eskaera hori egin dugun lau sektorearteko-ostean, iragarri beharrean nago, orobat, erki- degoak betetzen ari ez diren, exekutatzen ari ez diren, gerakin horretatik, EAE eta Nafarroa salbu, Nafarroak gehienez ere sei milioi euro jasotzen ahalko dituela gerakinen banaketatik, eta ordain- keta hori ez dela inola ere egingen 2025a baino lehenago. Hori jakinarazi digute jada".

Gerakinaren ordainketa ez bada inola ere egi- nen 2025a baino lehenago, eta lanek bukatuta egon behar badute 2026ko ekainaren 30a baino lehenago, gerta al daiteke epe-arazo bat sortzea, eta, horren ondorioz, funts horiek ezin bideratu izatea MRR Eraikinak Programara?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00432. Galdera, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarentzako euskarri juridikoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarentzako euskarri juridikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, jarraian azaltzen den informazioa helarazi zuen 2024ko ekainaren 11n honako honen betetze-mailari dagokionez: "Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua

premiatzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete ditzan" (11-23/MOC-00042 Mozioa); eta, zehazki, erabaki-proposamenaren hirugarren puntuari dagokionez, zeinak honako hau esaten baitu: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiaturik du Gardentasunari, informazio publiko eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiztaren 17ko 5/2018 Legearen 67.2 artikuluan ezarritakoa bete dezan".

Kontseilariak jakinarazi zuenez, joan den apirilaren 11n argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean martxoaren 20ko 29/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatu baitzen. Foru dekretu horretan, arlo juridikoko administrazio publikoko teknikariaren plaza bat sortu zen, 11904 zenbakiduna, Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiari atxikia. Plaza horrek euskarri juridikoa emanen dio Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari, eta dagoeneko horren berri eman zaio Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakariari.

Zer dataz geroztik ari zaio ematen euskarri juridikoa Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari, eta zer eginkizunetan datza euskarri hori?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00433. Galdera, garraiorako erositako arnagailuen ezaugarriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, garraiorako erositako arnagailuen ezaugarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00235 galderaren harira jasotako erantzunean esaten dena dela-eta, zein dira, zehazki, "prestazio handiagoak"? Eta, orobat, erantzunean esaten da erositako arnagailuak "hobeki egokitzen" direla "Lizarrako eta Tuterako Osasun Eskualdeko beharretara", biltegiratutako 150 arnagailuekin alderatuta; zergatik da hori, zehazki?

Iruñean, 2024ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00434. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan jasotzen diren gaikuntzarako prestakuntza-ekintzei buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan jasotzen diren gaikuntzarako prestakuntza-ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

I. Berdintasun Planaren jarraipena egiteko Batzordeak 2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuraren aktaren I. eranskinean, "Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamendurako Erregelamendu onezia" izenekoan, honako hau esaten da:

6. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko prestakuntza

Batzordeko kide guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintzak eginen dira behar besteko gaikuntza izan dezaten beren lana gauzatzeko,

politika publikoetan genero-berdintasuna aplikatzeko prestakuntza-ibilbidearen esparruan.

– Zer esan nahi du “behar besteko gaikuntza izan dezaten beren lana gauzatzeko” esamoldeak Nafarroako Gobernuarentzat?

– Zer prestakuntza-ekintza egin dira?

– Nork eman ditu?

– Batzordeko zer kidek jaso dituzte?

– Zer egin da prestakuntza-ekintza horietan?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-24/PES-00435. Galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan aipatzen diren berdintasunaren arloko ezagutzei buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan aipatzen diren berdintasunaren arloko ezagutzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Par-

lamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Berdintasun Planaren jarraipena egiteko Batzordeak 2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuraren aktaren I. eranskinean, “Jarraipen Batzordearen barne-funtzionamendurako Erregelamendu one-tsia” izenekoan, honako hau esaten da:

2. artikulua. Jarraipen eta Ebaluaziorako Batzordearen osaera

Jarraipen eta Ebaluaziorako Batzordea kide anitzeko organo paritarioa da, izaera teknikoa du nagusiki, eta Administrazioaren eta langileen ordezkariak osatzen dute. Kide guztiek behar besteko ezagutza izan beharko dute berdintasunaren alorrean, eta emakumeen eta gizonen ordezkari-tza orekatua izateko ahaleginak egingen dira.

– Nafarroako Gobernuaren ustez zer da behar besteko ezagutza izatea eta zeren arabera?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-24/PES-00436. Galdera, Familia Elkartzeko Gunea Lizarrako gizarte zerbitzuen barrutira hedatzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Familia Elkartzeko Gunea Lizarrako gizarte zerbitzuen barrutira hedatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Otsailaren 20an jaso genuen Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu kon-

tseilariari egindako idatziz erantzuteko galdera honen erantzuna:

Zer unetan da familia elkartzeko guneak Nafarroako gizarte zerbitzuetako barruti guztietara hedatzeko prozesua? Zer irizpide erabiltzen dira erabakitze berritzaile batean familia elkartzeko gune bat ezarriko den ala ez? Zer datu eman dezake zure departamentuak elkartzeko guneetara iristen diren kasuen kopuruari buruz, etxebizitzaren eremuaren arabera?

Beste kontu batzuen artean, honako hau zioen erantzunak: "Une honetan, eskaera bat dago zerbitzu hori Lizarrako Barrutira hedatzeko. Eskariak nahikoa izan behar du zerbitzua efizientea izateko, kontuan hartuta funtzionatzeko gutxiengo langile kopuru bat behar duela". Honako hau ere bazioen: "Lizarrako epaitegietan artatzen diren prozeduren analisia egiten da, baloratzeko ea datorren urterako barruti horretara hedatzen ahal den".

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu: Zer emaitza lortu dira analisi horren harira? Datu horiek kontuan hartuta, zer balorazio egin da familia elkartzeko gunea Lizarrako Barrutira hedatzeko aukerari buruz?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00437. Galdera, Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egiteko 2023an aintzat hartu ez diren "zeharkako eragina duten" programei buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egiteko 2023an aintzat hartu ez diren "zeharkako eragina duten" programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein dira eta zertan dautza 2023ko Berdintasunerako Plan Estrategikoaren memoria ekonomikoa egitean "zeharkako eragina duten eta zenbatespen ekonomikoa konplexua delako eta beste metodologia batzuekin aztertu behar direlako kontuan hartu ez diren" programak?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena